

/ Nabarmentzekoak

- > Udalak bosgarren prototipo bat aurkeztu du San Nikolas eraikinerako (2. or.)
- > Travelin 'Brothers taldeak bere azken diskoa, "Coming Home", aurkeztuko du, soinu organiko eta benetakoarekin (3. or.)
- > Kirol klubek 13 campus eskainiko dituzte Gabonetan (5. or.)



Getxo Modak omenaldia egingo die Petro Valderderi eta Ana Rodríguezi

(4. or.)

Antzerkia. Hilak 29, ostirala, 19:30ean, Muxikebarrin, "Kanpora sartzan", Xabin Fernández eta Intza Alkainarekin. 8€.

Kontzertua. Hilak 30, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, Errobiren emanaldia. 20€.

A-
GENDA

“Guztiok batentzat” kanpainak sororitate eta ekintza kolektiboaren alde egiten du, emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko

Emakumeen arteko sororitatea eta ekintza kolektiboa sustatzea, indarkeriaren aurrean elkarri laguntzeko, eta, aldi berean, etorkizuneko Gurari Emakumeen Etxea ikusaraztea dira Udalak azaroaren 25ean Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta antolatu duen Guztiok batentzat kontzientiazio-kanpainaren helburuak. "Kanpainak islatzen du Udalak indarkeria matxisten aurkako borrokan duen konpromiso irmoa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen nagusia dena, eta, gainera, Getxo segurua, inklusiboa eta gizartean errotuta dagoen egiturazko indarkeriarik gabe eraikitze konpromisoa berresten du, era askotakoa izan daitekeen indarkeriarik gabekoa", nabarmendu dute Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesiorako zinegotziak. Ildo horretan, kanpaina bat dator Emakundek, EUDELe, eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek sustatutako Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da. Batu gaitezen geldiarazteko lelopeko kanpainarekin, emakumeen aurkako indarkeria hutsaltzen duten diskur-



tsoen aurrerapenari aurre egiteko herritarrei eskatzen diena.

Kanpainaren euskarriak

Guztiok batentzat leloa herritarrengana iritsiko da hainbat lekutan zabalduko diren kartelen bidez, hala nola metro-geltokietan eta bus-marquesinetan, sare sozialetan eta udale-

ko hedabideetan. Kanpainak Gurari Getxoko Emakumeen Etxea ere ikusaraziko du, ahalduz pertsonalerako eta kolektiborako gune irekia, udalerriko emakume guztiei babesa, harrera eta informazio- eta prestakuntza-baliabideak eskainiko dizkiena; izan ere, "elkarrekin partekatze eta hausnartzeko gunea izan nahi du, esate baterako beste emakume batzuekin lotzeko moduari buruz, haien adina, jatorria edo dibertsitate funtzionala kontuan hartu gabe", nabarmendu du Díaz zinegotziak.

Bozeramaileen Batzordeak Adierazpen Instituzional bat eztatadatu du, eta gainera, puntu morea jarriko da udal-eraikin nagusietan, eta azaroaren 21etik 27ra Areetako Kaia pasealekua eta zenbait igogailu publiko morez argizatuko dira.

Herriko erakundeek antolatutako ekintzen artean, Gizatiar, Romo-Areetako emakume soziokulturalen elkarteak bere ohiko kontzentrazioa egingo du Areetako Zubia Plazako puntu morean, hilaren 25ean, 19:30ean.

“Getxo Eszena Irekia” deialdia, 120.000 euro getxotarrek sortutako proiektu artistikoetarako

Abenduaren 18ra arte egongo da zabalik getxotarrek sustatutako edo egindako proiektu artistikoak Getxo Eszena Irekia deialdiaren bosgarren ediziora aurkezteko epea; 120.000 euro erabili dira horretarako.

Iaz bezala, deialdia hiru modalitateetan antolatuko da. Lehenengoa sektoreko profesionali zuzenduta dago, pertsona juridikoak zein fisikoak izan. Bigarrenak, irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarteen profesionalak ez diren proiektuak hartuko ditu, eta, azkenik, udal-erregistroan erregistratuta dauden irabazi-asmorik gabeko kultur elkarteek aurkeztutako proiektu soziokulturalak aurkeztu ahal izango dira. Hiru modalitateetan, getxotarrek idatzi, diseinatu edo

banatutako obra edo proiektuak aurkeztu beharko dira, baita getxotarrek partaide edota kolaboratzaile dituztenak ere.

Deialdia antzerki edo koreografia proposamenetara, zinema emanaldietara, musika emanaldietara, bertsolaritzara, haurrentzako obretara, umorezko ikuskizunetara, errezitaldietara edo antzekoetara irekita dago. Hiru egun baino gehiago irauten ez duten lehiaketa, txapelketa, ziklo edo jardunaldien proposamenak ere onartuko dira. Lehenetsuna izango dute aurreko edizioan parte hartu ez zuten elkarte edota pertsonak.

Guztira, 26 proiektu aukeratuko dira, eta Muxikebarri zentroko areto eta espazioetan, Romo



Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan edota Areetako Geltokia plazan erakusteko diseinatuta egongo dira. Ohikoa denez, Getxo Kulturako kanalen bidez jakinaraziko du noiz antzeztuko diren, behin zehaztuta daudenean. Ohi bezala, Getxo Kulturak bere

kanalen bidez jakinaraziko ditu emanaldien datak, zehaztu ondoren. Hautatutako proiektuak 2025eko apiriletik 2026ko uztaile-ra bitartean erakutsiko dira.

Informazio gehiago eta oinarriak: <https://labur.eus/ragEL>



AZAROAK 21 OSTEGUNA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak. Elkarretaratzea. 19:30ean, Areetako Puntu Morean (Bizkaia Zubia), Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta. Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

Santa Zuzilia kontzertua. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, eskolako ikasleekin. Sarrera doan.

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean, Villamonten, "Anancy y la hora de los cuentos" (gaztelaniaz) Sonyaguar Fugorekin. 5 urtetik aurrera.

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Asier Altunaren "Amama" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

AZAROAK 22 OSTIRALA

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Travellin' Brothers. 18€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Delphine Girarden "Victima imperfecta" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Peter Landesmanen "La verdad duele" filmaren proiektzioa. "La conciencia frente a los intereses" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cinforumgetxo@icmediaeuskadi.es

Getxoarte. Getxoko Arte Publikotik ibilbideak. 18:00etan, "In Memoriam" (gaztelaniaz). Irteera: "Guztion etxea" eskulturatik, Udaletxearen aurrean.

AZAROAK 23 LARUNBATA

Ipuin-kontaketa: Storytime. 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "The dress maker" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es Antolatzailea: Kids&Us Algorta-Getxo.

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "Antígona" (gaztelaniaz) Sin Remilgos konpainiarekin. 5€.

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hij@s del Pop and Roll" Eskuz Esku, Biotz Alai eta Lilura abesbatzeekin. Sarrerak: <https://vivetix.com/es> plataforman bakarrik.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "The HalfNelsons". 5€.

Getxoarte. Getxoko Arte Publikotik ibilbideak. 12:00etan, "Besarkadatik besarkadara" (euskaraz). Irteera: "Industriaren monumentua" eskulturatik (Eduardo Coste kalea). 17:00etan, "In Memoriam" (euskaraz). Irteera: "Guztion etxea", Udaletxearen aurrean.

AZAROAK 24 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Turuleka oiloa" (euskaraz). 2,50€.

Antzerki solidarioa. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. "Todas a una" Eskuz Esku elkarrean Las Guindillas taldearekin. 5€ (DANAK kaltetutako pertsonen alde).

Getxoarte. Getxoko Arte Publikotik ibilbideak. 12:00etan, "Besarkadatik besarkadara" (gaztelaniaz). Irteera: "Industriaren monumentua" eskulturatik (Eduardo Coste kalea).

AZAROAK 25 ASTELEHENA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak. Elkarretaratzea. 19:30ean, Areetako Puntu Morean (Bizkaia Zubia), Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta. Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

AZAROAK 26 ASTEARTEA

Hitzaldia. 18:00etan, AJANE-Algortako Jubilatuen egoitzan (Juan Bautista Zabala kalea 6), "Mujeres que han escrito la historia de Getxo". Hizlaria: Javier Campo Esteban (idazlea).

AZAROAK 27 ASTEAZKENA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. jardunaldiak. Antzerkia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "El golpe" (gaztelaniaz) Las Paralelas konpainiarekin. Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxea (Villamonte), Ángela Figueraren obrari buruz (gaztelaniaz).

Hitzaldia. 19:00etan, Urgull Zentroan (Urgull kalea, Algorta), "Pensamiento oriental y occidental, una comparativa". Hizlaria: Miriam Rodríguez Morán (Filosofian doktorea). Antolatzailea: EurGetxo-Europako herritarrak.

AZAROAK 28 OSTEGUNA

Zinemabarrri. 19:00etan, Muxikebarrin, Ildiko Enyediren "En cuerpo y alma" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte Kultur Etxean. Eneko Bidegainen "Bichta éder" liburuari buruzko solasaldia, Egizuk antolatuta.

AZAROAK 29 OSTIRALA

Antzerkia. 19:30etan, Muxikebarrin, "Kanpora sartzen" (euskaraz) Xabín Fernández eta Intza Alkainarekin. 8€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Sonic Trash taldearen emanaldia. 8€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pablo Agueroren "Akelarre" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Zine Foruma. "Il Cine: Cultura y Sociedad. Un espacio de diálogo". 18:30ean, Romo Kultur Etxean, Clin Eastwooden "Sully" filmaren proiektzioa. "La técnica y las decisiones humanas" (gaztelaniaz). Moderatzailea: José Manuel Gutiérrez (Artearen Historiako irakaslea). Doan. Erreserbak eta informazioa: cinforumgetxo@icmediaeuskadi.es

Solasaldia. 19:00etan, Fadura kiroldegian. "Ipar kanala, North Channel", Iskander Sagarminaga igerilariaren eta Eider Eibar ilustratzailearen eskutik, euskaraz. Swim Camp Getxo elkarteak antolatuta. Sarrera irekia.

AZAROAK 30 LARUNBATA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, Errobiren emanaldia. 20€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Forcione & Giorgio Serici gitarrak bikotearekin. Sarrera: 5€.

ABENDUAK 1 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Buscando a la mágica Doremi" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lagunak. Abentura munstroen uhartean" (euskaraz). 2,50€.

Antzerkia. XIX. Emakumeak Eszenan Zirkuitua. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El triunfo" (gaztelaniaz). 4,50€.

Udalak bosgarren prototipo bat aurkeztu du San Nikolas eraikinerako

Udalak bosgarren prototipo bat aurkeztu du, Portu Zaharreko San Nikolas 23 udal eraikinean etorkizuneari egin daitezkeen jarduerari eta ekipamenduari buruzkoa. Eraikin enblematikoa eta historikoa da, eta, lehen birgaitze-fase baten ondoren, Udalak erabilera bat eman nahi dio.



Proposamen berri hau joan den ekainean egin zen eta hogeitabat pertsonak parte hartu zuten topaketan sortutako lau prototipoen bilduma da, hain zuzen ere. "Helburua da auzoak eta komunitateak elkartzeko gune bat izatea, bertan bizi direnek sozializatzeko, harremanak izateko

eta auzoa indartuko duten jardueretan parte hartzeko aukera izan dezaten. Formatu txikiko kultur jarduerak izango dira, aldi baterako erakusketak, liburuen aurkezpena eta hitzaldiak, baita adin guztietako gazteentzako tailerrak ere", adierazi du Zalao Campillo Partaidetzako zinegotziak.

Aurrerago, obren azken fasea osatuko da, eta, ondoren, eraikina egokituko da, aipatutako prozesua itxi ondoren.

Prototipo guztiei buruzko argibideak: <https://zeugaz.getxo.eus/processes/San-Nikolas23?locale=eu>



"European Days of Local Solidarity" jardunaldiak 35 pertsona bildu zituen saharar herriaren eskubideei buruz mintzatzeko

Elkarlanerako eta elkartasunerako ikuspegi berriak aztertuz izeneko European Days of Local Solidarity jardunaldiak (PLATFORMAREN ekimena) 35 pertsona bildu zituen aurreko ostiralean, azaroak 15, Getxo Elkartegian, Udalak Getxotik Mundura Mundutik Getxora programaren barruan, eLankidetzan-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak eta Euskal Fondoak antolatuta, saharar herriaren eskubideei buruzko hausnarketa egiteko. Carmen Diaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziak egindako ekitaldiaren irekieraren ondoren, besteak beste, hurrengo gaiei buruz hausnartu zituzten parte hartzaileek: lankidetzaren eta elkartasunaren; egiaren, justiziaren eta erreparazioaren eskaerak; nazioarteko zuzenbidearen eta nazioarteko harremanen ikuspegi berriak, eta Saharako gazteen egoera.



Omenaldia mendeko pertsonen senide zaintzaileentzat

Mendeko pertsonen 40 bat senide zaintzaile omendu zituen aurreko ostiralean Udalak, azaroaren 5ean Zaintzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zela eta, Romo Kultur Etxean antolatutako ekitaldian. Bertan Carmen Diaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziak hain ahalegina eta lana eskertu zituen eta, aldi berean, nabarmendu zituen zaintzaileek beren lana aurrera eramateko jasaten dituzten zailtasunak, zainketek osasuna mantentzeko duten garrantziarekin batera, "batzuetan behar bezala aintzatesten ez den lana".

Umorea Lab jardunaldiak

Asteburu honetan, azaroaren 22an eta 23an, Umorea Lab Getxon 2024 jardunaldiak egingo dira Getxo Elkartegian (Ogoño kalea, 1), ikus-entzunezko enpresen topaketa profesionala, Ardatz Atlantikoan ikus-entzunezko erreferenteetako bat izango dena. Klip Kultur Elkarteak antolatutako ekimena da, Udaleko Ekonomia Sustapena Arloak eta EPE-IBAIA Ekoizleen Elkarteak babestua. Jardunaldien helburua da parte-hartzaileei eta industriako profesionali jardura desberdinek eskaintzea.

Informazioa: <https://labur.eus/8rHzW>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailua legala: BI-388-87

Travelin 'Brothers taldeak bere azken diskoa, "Coming Home", aurkeztuko du, soinu organiko eta benetakoarekin



Travellin' Brothers blues talde leioaztarrak kontzertua eskainiko du ostiralean, hilak 22, Muxikebarriko Arrigunaga aretoan, *Coming Home* bere azken lana aurkezteko. Emanaldia 21:00etan hasiko da eta sarrerak 18 euroko prezioa du.

Diskoak bere abesti baten izen-

burua darama eta mundu hone-tatik alde egiten duen pertsona bati buruzko metafora bat da, baina modu zoriontsu eta bake-tsuaren egiten du, guztia ahalik eta ondoen egin izanaren kontzientzia lasaiarekin, bereak lagundu eta maitatu izanaren kontzientziarekin.

Lan berri honekin taldeak soinu organikoa eta benetakoa bilatu du, baina aldi berean gaurkotua eta kalitatezkoa. "Diskoan gure zigilua eta nortasuna agerian geratu direla uste dugu, beti bilatzen dugun eta taldearen DNAn sutan grabatuta dagoen sustraiaren eta berrikuntzaren arteko oreka hori. Beti blusean bidaia hasiz, amerikar sustraiko musika guztietan konplexurik eta mugarik gabe murgiltzeko. Uste dugu beste urrats erraldoi bat eman dugula gure kalitatean, bai komposizioan, bai interpretazioan".

Coming Home hogeitun urte baino gehiago munduan zehar biran eman dituen taldearen hamargarren lana da, eta 1.200 kontzertu baino gehiago eman ditu, besteak beste, European, Estatu Batuetan eta Txinan.



The Half Nelsons Musika Eskolan

Larunbatean, hilak 23, The Half Nelsons taldea igoko da Areetako Andres Isasi Musika Eskolako agertokira, ibilbide luzeko musikariekin sortutako proiektua eskaintzeko: Still Riverreko Dan Cabanela, Travellin' Brotherseko Aitor eta Eneko Cañibano anaiak eta Unai Olabarri. Kontzertua 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.

Country eta Old Folk tradizio amerikarrean oinarritutako errepertorioa eskainiko dute, Apaloosa mendietako estilorik garbienean. Kantu tipiko eta nabarietatik ihes egiten dute, eta delicatessen errepertorio bat oparitzen digute, mimoz eta sotiltasunez aukeratua, historiako artista handienetako batzuen (Bob Dylan, Willie Nelson, Lyle Lovett edo Bill Withers) eta munduko eszena berritzen ari diren gaur egungo beste artista batzuen (Ray Lamontagne, Seth Walker, Wood Brothers eta John Mayer, besteak beste) abestiak bilatuz. Errepertorio akustikoa, une sotil eta delikatuarekin, eta energiaren eta pasioz betetako beste batzuekin.

"Hij@s del Pop and Roll", kontzertu-ikuskitzuna korala

Eskuz Esku, Biotz Alai eta Lilura Getxoko abesbatzek eskainiko duten *Hij@s del Pop and Roll* ikuskizunerako sarrerak agortu dira dagoeneko. Ikuskizuna larunbat honetan, hilak 23, ikusiko da Muxikebarrin.

20:00etatik aurrera, hiru taldeetako koralistak, zazpi musikari eta musikaz osatutako banda batekin batera, agertokira igoko dira kontzertu-ikuskitzuna bat aurkezteko, orain arte ikusi ez diren moldaketekin, eta XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetako pop-rock piezak eta artistak omenduko dituzte. Besteak beste, Mecano, Seguridad

Social, Danza Invisible, Loquillo, La oreja de Van Gogh, Joaquín Sabina, Duncan Dhu eta Nacha Pop taldeen abestiak entzun ahal izango dira. "Ikuskizunak", azaldu dutenez, "belaunaldi desberdinak hurbildu nahi ditu, gai handien oroimena berreskuratuz, musika eta zuzeneko ahotsak dituzten tramankulu eta artificio elektronikorik gabe. Klasikoak gogoratzeke edo lehen aldiz deskubritzeko aukera, eta norekin hunkitu, barre egin, abestu eta dantzatu denboran zehar bidaia honetan".

Hij@s del Pop and Roll Getxo Eszena Irekia deialdian hautatutako ikuskizunetako bat da, getxotarrek

sustatutako edo egindako artelanen eta proiektu artistikoen erakusketa sustatzea eta erraztea bilatzen duena.

Deialdi honetan balioesten diren alderdietako batzuk honako hauek dira: proposamenek udalerriarekin lotura izatea (proposamena, proiektua osatzen duten pertsonak...), proposatutako gaiaren kalitatea, interesa eta originaltasuna, xede dituen publikoen tipologia, eskatzaileen ibilbidea eta esperientzia, euskarenen presentzia eta erabilera, genero-ikuspegia txertatzea, edo 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuak betetzearekin duten lotura.



"Mujeres que mueven montañas" lanaren zortzi kontakizun

Begoña Santos Olmeda idazleak Benta espazioan (Ángel etor. 49), *Mujeres que mueven montañas* kontakizun bilduma aurkeztu du. Bertan, ahantzuratik zortzi istorio bikain erreskatatu ditu. Istorio horien protagonistak mendizaleak, zientzialariak, aktibistak, landa-inguruneetan bizi diren emakumeak eta abar dira. Estilo arin eta hurbilean idatzitako testuek benetako esperientziak jorratzen dituzte, bakoitzaren subjektibotasuna atzemanaz: emozioak, beldurrak, mundua ikusteko eta interpretatzeko modua eta aurrean dituzten gertaerak.



Sin Remilgos-ek "Antígona"-ren bertsio berri bat taularatuko du

Getxoko Utopian Antzerki Eskolako Sin Remilgos konpainia helduak Sofoklesen tragedia klasiko handiaren bertsioa taularatuko du larunbatean, hilak 23, 19:00etan, Muxikebarrin. Zazpi interpretetako talde batek, zortzi ahotseko koru batekin batera, Kreonte eta Antigonen tragedia gorpuzten du. Izeba eta iloba, biak beren diskurtsoetan giltzapetuak, boterearen arteko borroka batean, protagonistak muturreko emozioletara eramaten dituen. Carlos Baigesen zuzendaritzapean eta Miguel del Arcoren egokitzapenarekin, Aitziber Fernández, Marisa Fernández, Pilar Roa, Joseba Olivares, Arantza Esteban, Alicia Gascón eta Maider Morán dira aktoreak. Sarrera: 5€.

Bertako merkatariek udazken-neguko azken joerak erakutsiko dituzte eta Ion Fizek itxiko du "Basque Style" pasabidea

Getxo Modak omenaldia egingo die Petro Valderderi eta Ana Rodríguezi

Ostegunean, azaroaren 28an, 20:00etatik aurrera, Olatua itsas bidaietako terminalean, Kirol Portuan, Getxo Modaren 37. edizioa izango da, GetxoEnpresak Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Udalerriko 23 establezimenduk jendeari erakutsiko dizkiote udazken-neguko modaren azken joerak, eta enbaxadore eta tokiko merkataritzaren eta turismoaren irudi izango dira berriro, kontsumo jasangarriaren erakarpen eta estimulu gisa.

Euskal diseinuaren izen garrantzitsuenetako batzuen proposamenak *Basque Style* pasabidean ikusi ahal izango dira. Pasabide hori Ion Fiz sortzaile ospetsuak itxiko du, eta 2002tik da ezaguna, moda diseinu berritzaile eta dotoreekin birdefinitzeagatik. Ion Fizek sari garrantzitsuak jaso ditu bere ibilbidean zehar, besteak beste, L'Oreal Paríque, Prix de la Moda Marie Claire eta Urrezko Titarea.

Errekonozimenduei dagokienez, Getxoko ibiltokiak Petro Valverde omenduko du, 40 urte baino gehiagoko ibilbidea duen diseinatzailea, ospe eta kalitate handikoak, bere diseinuak mundu osoko aristokratek janztea eragin



dutenak. Nabarmentzekoak dira festarako soinekoak, emaztegarrenak eta prêt-à-porter-enak, perfumeriako linea eskusiboekin eta bitxiekin osatzen direnak. Pasabidearen gainean, bere ibilbideko modelo adierazgarrienetako batzuk ikus daitezke. Halaber, Ana Rodríguezen ibilbide profesionala ere aitortuko da. Europako modaren erreferentea da, eta 2022az geroztik estatuko pasabide garrantzitsua da, Mercedes Benz Fashion Week Madrid.

Bertokoaz harro

Getxo Modak, GetxoEnpresatik adierazi dutenez, "bertokoa izateaz harrotasuna sustatzen du. Getxo aisia-, erosketa- eta turismo-helmuga gisa nabarmentzea indartzen du. Getxok profil propioa du turismo-helmuga eta erosketa-helmuga gisa. Getxo helmuga erakargarria eta interesgarria da, kalitatezko helmuga, hiriko beste marka batzuk bezala, hala nola Donostia edo Biarritz, eta bisitariak erakartzeko ahalmena gordetzen du, bere merkataritza-, ostalaritza- eta hotel-sarea osatzen duen xarma horretaz gozatzeko".

Desfileetara joateko gonbidapenak parte hartzen duten saltokietan lor daitezke. Informazio guztia www.getxomoda.com webgunean eta @GetxoModa sare sozialetan kontsulta daiteke.



XV. Argia Ereiten Euskara Saria Tor magoari emanda Muxikebarrin

Amaia Aguirre alkateak Argia Ereiten Euskara Saria eman zion Tor Magoari (Aitor Bilbao Beramendi) asteartean, hilak 19, Muxikebarrin. Saria, Ibon Garagarza artista getxotarrak egindako eskultura jaso zuen magoak, bere magiaren ikuskizunetan euskararen erabilera sustatzeagatik. Alkateak Tor magoa zoriondu ondoren, adierazi zuen Aitorrek urteak daramatzala getxoar euskalduna izatearen harrotasuna Euskal Herri osotik zabalitzen, ekitaldietan birritan egiten magia, euskararekin magia eta lilura eta miresmena sortzen. "Euskararekin antzeko sentsazioak sortu nahiko genituzke, hau da ahoak zabaldu, emozioak deitu eta herritarrei komunikatu badagoela aukera mundua beste modu batera ezagutzeko, ulertzeko eta gozatzeko, uste dugulako badela ezkutuan dagoen eta euskaraz azalatu ahal den Getxo bat, eta magiak bezala, mirestuko gaituela", adierazi zuen alkateak. Bestalde, magoak magia une bat opatu zuen, eta pozik eta urduri esan zuen magoen artean esaten dutela helburua ez dela magia bera baizik eta produktua erakargarria izatea jendearentzat, magia erabilia. "Hau euskarara ekarrita, helburua ez da euskara bera baizik eta euskara erabiltzea helburua lortzeko. Euskarak bidea izan behar du", zehaztu zuen getxotarrak.



Gu Gara kuadrillak eta Azkorri ikastetxeak sari bana jaso dute Hemendik Sarietan

Algortako Gu Gara kuadrillak eta Azkorri ikastetxeak sari bana jaso zuten Eskuinaldeko XVII. DEIA Laboral Kutxa Hemendik galan, iragan ostegunean, hilaren 14an, Faduran. Ekitaldira Amaia Aguirre alkatea ere joan zen, eta protagonistak eta ikusleak agurtu zituen, eta, era berean, errekonozimendu horien garrantzia azpimarratu zuen, gizarte arloan ikusmin handia eragiten duten sariak baitira.

Gu Gara taldea bere kideen ordezkaritza zabalarekin joan zen ekitaldira. Lagun familia handi bat osatzeagatik saritu zuten, batik bat, duela 50 urtetik elkartuta dagoen taldea baita, ekitaldian zehar azpimarratu zuten bezala. Anselmo Ardanza eta José Limia kideetako bi *La cuadrilla GU GARA a través el tiempo. Crónicas y recuerdos tras 50 años* liburuaren egileak dira. Bertan, taldeak 1973 eta 2023 urteen artean izandako bizipenak eta esperientziak jasotzen dira.

Azkorri ikastetxea, bestalde, ikastetxeko zuzendaritzaren babesarekin bertako ama talde batek bultzatutako hezkuntza proiektuagatik saritu dute. Proiektu hori ikasleekin garatzen ari da, mugikorrik gabeko haurtzaroa lortzeko helburuarekin. Hori dela eta, lehen gailu mugikorren erosketa gutxienez 16 urtera arte atzeratzeko itun baten alde egin du proiektu horren harira.

Kirol klubek 13 campus eskainiko dituzte Gabonetan

Getxoko kirol klubek 13 campus antolatu dituzte aurtengo Gabonetarako, honako modalitate hauetan: gimnastika erritmikoa, saskibaloia, igeriketa, atletismoa, futbola, pati-

najea, areto futbola, kirol egokitua, patin-hockeya eta eskubaloia.

Ekimen hau Getxo Kirolak-ekin lankidetzan sustatu ohi da eskola-

-oporraldietan, eta helburu bikoitz du: batetik, kirol-jarduera eta aisia osasungarria sustatzea, eta, bestetik, Getxoko familiei lana eta denbora libre bateratzeko auke-

rak eskaintzea.

Interesatuak jardueren informazio zehatza Getxo Kirolak-en webgunean kontsulta dezakete.

| GABONETAKO KIROL CAMPUSAK | | | | | |
|--|---|------------|--|--------------|---|
| Antolatzailea | Programa | Adina | Egunak eta ordutegia | Prezioa | Kontaktua |
| Getxoko Gimnastika Kluba | Gimnasia erritmikoaren inguruko jarduerak Faduran | 6/15 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:00-14:00h | 84/160€ | club_ritmica_getxo@hotmail.com Tfn.: 685 545 032 |
| | Psikomotrizitatea eta jokoak Faduran | 3/5 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:30-13:30h | | |
| Getxo Saski | Saskibaloia Faduran | 4/14 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-14:30h | 35/175€ | campusgetxosaski@gmail.com 657 773 523 |
| Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte | Igeriketa, kirol anitza eta tailerrak Faduran | 4/12 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-14:30h | 90/170€ | info@getxoiw.com www.getxoiw.com |
| Getxo Atletismoa | Atletismoa Faduran | 6/13 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:00-13:30h | 50€/astea | getxoatletismoa@gmail.com 688 698 882 |
| Romo F.C. eta Arenas Cluba | Futbola Gobelan | 5/12 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:00-14:00h | 25/180€ | eventos@romofc.com 657 268 606 |
| Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Kluba | Iristaketa linean eta multikirolak Gobelan | 3/12 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-14:30h | 35/164€ | campus@getxoazkarrenak.com 662 940 436 |
| Artaromo Getxo Fútbol Sala | Areto futbola Gobelan | 5/11 urte | Abenduaren 23tik 27ra. 9:00-13:00h | 90€ | artaromo@hotmail.com 666 140 627 |
| Getxo Futbola Fundazioa | Futbola Faduran | 5/13 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:00-14:00h | 90/200€ | kanpusa@getxofutbola.com 656 708 299 |
| Haszten Asociación | Campus inklusiboa eta egokitua | 14/30 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 9:00-14:00h | 25€/día | gorka.haszten@gmail.com 747 404 358 |
| Getxo Show Iristaketa Kluba | Iristaketa artistikoa ingelesez Andra Marin | 4/16 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-13:30h | 25/30€/eguna | info@cshowgetxo.com Tfn.: 615 501 624 |
| Getxo Iristan Kirol Kluba | Patin-hockeya eta iristaketako hastapena Faduran | 4/12 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-14:30h | 64/85€ | klub@getxoirstan.com 670 733 824 / 622 593 057 |
| Romo Eskubaloi Kluba | Eskubaloia Gobelan | 8/14 urte | Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra. 8:30-14:00h | 150€ | club.balonmmano.romo@gmail.com 669 163 245 |

“24 orduz igerian, euskararen alde” ekimena

Abenduaren 7an eta 8an, Fadurako igerilekuan, bigarren urtez, 24 orduz igerian, euskararen alde ekimena izango da, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta. Horretan txandaka eta gelditu gabe, 24 orduz, igeri egingo dute euskararen alde parte hartzaileek. Swim Camp Getxo igeriketa elkartearen IgeriBizi egitasmo sozialak antolatuta, Udalaren laguntzarekin, oraingoan bilduko den dirua Bizkarra Lepoan elkartearentzat izango da, “neurri handi batean, eurei esker daukagulako geure hizkuntzan bizitzeko aukera andana, geure herrian bertan”, antolatzaileren hitzetan.

Parte hartu nahi duten enpresek, elkarteek eta taldeek 50 euroren truke ordubete erosi ahal izango



dute eta, erreleboak eginda eta nahi duten erritmoan, ordu hori beteko dute. Bestalde, kuadrillek eta lagunek, pertsonako 5 euroko donazioa egingo dute, eta nahi beste denbora egon ahal izango dira uretan, eta familiek, 10 euroko donazioa eginda. Izenematea <https://swimcampgetxo.com/> webgunean egin beharko dute interesatuak.

Aurreko urtean bezala, lehen erreleboa Mikel Erdozain kirolari paralinpiarra eta aurtengo Parisko Jokoetako lehiakideak egingo du. Ekitaldian zehar jolasak izango dira, eta sorosleek eta Swim Camp Getxo elkarte kideek segurtasuna, errespetua eta denek ongi pasatu ahal izatea bermatuko dituzte.

Javier Onaindiari omenaldia

91 urterekin, Javier Onaindia (argazkiaren erdian), RCMA-RSCKo arraunlari zaharrena, omendu zuen Areetako bere Klubak joan den larunbatean, hilak 16. Oirogari eder bat eman zioten, eta *Symphony* bere ontziaren koadro bat ere.



Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO KONPROMISOA

Laster dator azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, eta EAJ-PNV taldeko kideok beste behin adierazi nahi dugu irmoki gaitzesten ditugula emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak. Emakume izate hutsagatik emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria ez da beti agerikoa eta horren aurka dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, desberdintasunaren eta genero-diskriminazioaren aurkako adierazpenik larriena baita.

Paragrafo horrek zenbait urte ditu dagoeneko baina, zoritxarrez, erabat indarrean dago 2024an, indarkeria matxistaren gaitza ez delako amaitzen; beraz, ezinbestekoa da gizarte osoa gizarte-krisi horretaz konturatzea.

Funtsezkoa da gizartea eta erakundeak batera aritzea lanean aipatutako indarkeria desagerrarazteko. Denok batera egin behar dugu arraun emakumeen giza eskubideak defendatzeko, guztioi eragiten baitigu eskubide horien urraketak.



Getxoko EAJ-PNVko kideok argi geneukan gure hauteskunde-programan gure ekintza politikoaren zeharkako ardatz garrantzitsua izan behar zirela berdintasuna eta giza eskubideen errespetua. "Getxo, kohesionatua, anitza eta inklusiboa. Bidezkoa den eta desberdintasunik onartzen ez duen gizartea eraikitzeke balioak dira berdintasuna, ekitatea eta kohesioa. Bizi-proiektu guztiak onartzen dituen gizartea behar dugu eta pertsona guztiok izan behar ditugu garatzeko gutxieneko baldintzak". Horrela adierazi genuen eta udal-gobernuak gauzatzen ari ditu planteatutako ekintzak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eta ekitatea lortze aldera; hauek dira, hain zuzen ere: Getxoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana garatzea; aurrekontua genero-ikuspegiarekin bultzatzea; eta Emakumeen Etxea zabaltzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko balio askotako espazioa.

Indarkeria matxistaren aurkako konpromiso argia, A25ean ere bai.



ALKATEAK HUTS EGIN DIGU GETXOZTARROI, ZER EZKUTATZEN DIGU?

Getxoko PP alderdiko kideok adierazi nahi dugu oso kezkatuta gaudela alkateak erabaki zuelako ez deitzea "Irurak Bat" kasuari buruzko **Ikerketa Batzorde Berezia**, zeina **azaroaren 12an (asteartea), 12:00etan**, izango baitzen, osoko bilkuren aretoan. Are gehiago, aipatutako batzordea gehiengo osoarekin onetsi zen urriko osoko bilkuran, **alderdi honek aurkeztutako mozio** baten harira, zeinaren bidez eskatu baikenuen ikertu daitezen Algortako jauregitxo historikoaren eraispinari lotutako ingurubarrak.

Alkatearen erabaki horrekin oraindik gehiago areagotu dira prozesuaren gaineko zalantzak eta getxoztarrok gobernu-taldearen aurka dugun mesfidantza. Hori guztia ikusita, aipatzekoa da susmatzen dugula alkateak estali nahi dituela ustez mesede-tratua izan duten bi zinegotziak. Era berean, alderdi honen helburua zen aipatutako batzordeak, besteak beste, ikertu zitzan honako kontu hauek: **obralizentzia ohi baino azkarrago eman izana**, lizentzien etetea berandu arkitaratu izana, eta udal-arloen arteko ustezko koordinazio-falta.



ehbildu

LARUNBATEAN DENOK BILBORA!



Gure hizkuntzaren, kulturaren eta herri gisa izateko dugun eskubidearen aurkako erasoaldiak areagotzen ari diren honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da gure ahotsak eta presentzia batzea.

Euskal Herria nazio bat da, eta, hala den heinean, errespetua merezi du. Gure nazioa, gure historia eta gure kultura, hala nola euskara, gure hizkuntza, espainiar nazionalismoaren eraso jomugan dira azken garaioan.

Bilbokoa ez da manifestazio soil bat izango, harrotasun erakustaldi bat izango da, gure lurrarekiko, gure jendearekiko eta euskaldun izateak irudikatzen duen guztiarekiko

maitasun erakustaldi bat. Elkar ditzagun gure ahotsak. Exijitu dezagun dagokigun aitortza: nazio burujabea behar dugu izan. Indar atzerakoi eta autoritarioek gure askatasunen inguruan duten ikuspegia inposatu nahian dabilzan garaioan, burujabetza da gure errezeta. Burujabetza da gure eskubideak, kultura eta bizitzeko modua babesteko gakoa. Horrek baino ez du bermatzen Euskal Herri gisa partekatzen ditugun balioak gailentzea haien inposaketan gainetik.

Larunbatean, 17:30ean, Autonomia kale-tik, manifestazio nazionala! Euskal Herria, nazioa gara!



A25: KONPROMISO IRMOA BERDINTASUNAREKIN



NEGUKO ATERPETXEA

Beste urte batez, Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna den azaroaren 25aren harira, aldarrikatuko dugu **gizarte gisa batzea indarkeria matxista** mota guztiak desagerrarazteko.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzea eta emakumeontzat seguruagoa den Getxo udalerrira eraikitzea **PSE-EEren lehentasunezko helburua da**. Gizarte gisa dugun konpromisoa sendotu behar dugu eta **ekintza kolektiboa bultzatu emakume guztiak beldurrik eta indarkeriarik gabe bizi** diren mundua eraikitze aldera.

Udaleko Berdintasun Zerbitzuan, zeina PSE-EE taldeak duen baitu, kanpaina bat antolatu dugu **segurua, inklusiboa eta indarkeriarik gabeko Getxo udalerrira eraikitzeke dugun konpromisoa berresteko**. Ekintza kolektiboa bultzatzeko deialditzat jo behar da kanpaina, zeinaren bidez gogorazi nahi dugu emakumeenganako indarkeria batera borrokatzen dela, ukondo ukondo. **Getxoko etorkizuneko Emakumeen Etxea** ere ikusarazi nahi dugu: GURARI. Guztiontzako espazioa izango da, udalerriko emakumei laguntza, babesa, baliabideak eta prestakuntza emateko.

Osoko bilkurak gure proposamena onetsi du Getxoko neguko aterpetxea egunero zabaldu dadin. Temperatura 5 °C azpikoa denean eta alerta meteorologikoa dagoenean soilik zabaltzen da gaur egun baliabidea. Onargarria al da 6 °C-ko temperaturarekin kalean lo egitea? Gure eskualdean beharizan handia dago une honetan, badakigu proposamena berez ez dela nahikoa, baina jada dagoen baliabidea beti egon beharko litzateke zabalik.